

Eskualdatzea. Oiartzun 2023/06/17

DOINUA: Azken arnasa eman nahi nuke

Azkengabeko pausu Gurutze,
bidegorrien irute
Landetxen hormek kale kultura
bizirik da dioskute
Zaintzadikoez bakardadea
jendetu egiten digute
Argitturrikin energiaren
printzek bizirik diraute
Oiartzuneko txokoek zuen
lanaren usaina dute.

Gertutasuna, umiltasuna
baloreen biderketa
Printzipio gisa izan duzue
herritarron entzuketa
Aipagarria, txalogarria
kudeatzaile fazeta
Honek nahitaez berekin dakar
ondorengo gogoeta:
Ez oso urruti erretiratu
behar zaituztegu eta.

Nola estimatu, nola ondratu
deskantsatzera doana?
Hasieratik amaiera arte
lana, lana eta lana
Ideiak taupa, bihotza eskuan
beste eskuan programa
Bihotz-bihotzez eskertzen dugu
urte hauetan emana
bihotzez maite dugun Oiartzun
hobea egin izana.